

# EUSKAL JAIA 2009

Aurtengo honetan ere, iaz bezala, erronka garrantzitsu modura hartu dugu Anoetako Udalak eta herriko hainbat eragilek Euskal Jaia antolatzea. Egun honen helburua **gure nortasuna adierazteaz gain, bertako eta inguruko nekazariei babesa adieraztea da.** Horretarako zer hobeto, egitarau zabal eta parte hartzaile bat osatzea non gure kultura, nekazari eta artisauak diren protagonista nagusiak.

Egun hau antolatzeko garaian argi genuen herritarrek antolaturiko zerbait izan behar zuela oinarri. **Herrian ditugun eragile eta norbanakoen laguntza eta borondatea ezinbestekoa izan da itxurazko egitarau bat osatzeko.** Jendearen parte hartze honek izugarritzko ilusio eta aldi berean datozen ekintzetarako babesa adierazten du.

Gure aldetik, herritar guztiak gonbidatzen ditugu, baita inguruko herrietakoak ere, **urriaren 11n egingo diren ekintzetan parte hartzeko, baserritarrez jantzita.**

Aldi berean deialdia luzatzen dugu **azokara hurbildu eta bertako produktuak jendeak eros ditzan,** inongo bitartekaririk gabe. Hortaz, aurten postuetan erosten dutenei txartel bat emango zaie postu politenaren bozketan parte hartzeko, eta botoa ematen dutenen artean bertako produktuen saski bat zozketatuko da. **13:00ean jakinaraziko da zein den postu politenaren sariduna, eta boto-emaileen sariduna.**

## AZOKAN EGONGO DIREN POSTUAK

OTERO PILOTAGILEA. Pilota (Anoeta)

JOXE LEON LARRARTE. Egurra (Anoeta)

INES FLORES. Bisuteria (Anoeta)

SAROBÉ BASERRIA. Barazkiak (Anoeta)

MENDIBIL BASERRIA. Barazkiak (Anoeta)

AZPIAZU MINDEGIAK. Landareak (Anoeta)

ARGINDEGI BASERRIA. Barazkiak (Anoeta)

BARRUNDI BASERRIA. Barazkiak (Anoeta)

EUSKAL TXERRIA (Bidegoian)

ERREZILGO PRODUKTUAK (Errezil)

ALDABAZAR. Barazkiak (Aldaba)

BODEGAS CASTILLO DE LA SERNA (Laguardia-Errioxa): Ardo dastaketa

*IKASTOLAK ERE PINTXO POSTUA JARRIKO DU*